

ikus puntua

Bizkaiko ekonomia
La economía de Bizkaia
#0 2004

Aurkezpenak / Presentaciones

Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila sinetsirik dago garrantzitsua dela Bizkaiko ETE-entzako baterako jarduerak garatzea; eta, Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberarekin batera, beharrezkoa dela ikusi du Bizkaiko ekonomi datuen informazio sistematikoa ematea eta, bide horretatik, eboluzio ekonomikoaren jarraipen bat egin ahal izatea.

Horrela beraz, argitalpen hau hiru hilean behin aterako da eta Bizkaia aurreko hiruhilekoan izan duen eboluzioa jakinaraziko dizu. Denbora pixka bat eskaintzen badiozu, gure inguru hurbileko eboluzioaren berri izango duzu.

Nolanahi ere, eta informazio gizarteak dakartzkigun aukerak aprobetxatuz, informazio hau sakonago ezagutu nahi duenak dokumentu osatuagoa eskura dezake Interneten.

Gure ahalegin hau Bizkaiko enpresen tresna baliotsu bilakatzea espero dugu.

El Departamento de Innovación y Promoción Económica, convencido de la importancia de desarrollar actuaciones conjuntas que redunden en beneficio de las PYMEs de Bizkaia, ha detectado junto con la Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Bilbao la necesidad de ofrecer de manera sistemática datos económicos relevantes referidos al Territorio Histórico de Bizkaia; permitiendo, de este modo, realizar un seguimiento de su evolución.

Así, trimestralmente esta publicación le permitirá conocer la evolución de nuestro Territorio en el trimestre anterior. A cambio de unos minutos de su tiempo obtendrá una información sobre la evolución de nuestro entorno más próximo.

No obstante, y aprovechando las capacidades que la sociedad de la información nos ofrece, toda persona interesada en profundizar en esta información dispondrá de un documento más completo accesible a través de internet.

Esperamos que el esfuerzo que estamos realizando se convierta en una valiosa herramienta para nuestras empresas.

Tontxu Campos

Berrikuntza eta Ekonomi Sustapeneko Foru Diputatua. Bizkaiko Foru Aldundia
Diputado Foral de Innovación y Promoción Económica. Diputación Foral de Bizkaia

Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberak luze jardun du EAEko eta, batik bat, Bizkaiko ekonomi datuak, estatistikak, iritziak eta azterketak eskaintzen, agente ekonomikoek ekonomi aldagaiei buruzko iritzi bat izan dezaten eta, ildo horretatik, erabakiak har ditzaten.

Indarrak bildu eta aurrera egiteko asmoz, Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Sustapen Sailak eta Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberak "Ikuspuntua" argitalpena diseinatu dugu, non Bizkaiko enpresek aipatu informazioa aurkituko baitute.

Baina ezin izango genuen helburu hau lortu erakunde, instituzio, organismo, eta enpresen lankidetzagatik izan ez balitz, ez eta, azken finean, langileek, ahalegin eta pazientzia handiz, gure datu eta iritzien eskabideari erantzun izan ez baliote. Eskerrik asko bihotzez guztioi.

La Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Bilbao tiene una larga experiencia en ofrecer datos, estadísticas, opiniones y análisis acerca de la economía, fundamentalmente de Bizkaia y del País Vasco, a fin de que los agentes económicos puedan disponer de elementos de juicio sobre las variables económicas y puedan, así, tomar las decisiones más sustentadas.

Con la voluntad de sumar fuerzas para avanzar, el Departamento de Innovación y Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia y la Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Bilbao hemos diseñado "Ikuspuntua", publicación en la que las empresas de Bizkaia encontrarán la información mencionada.

Un objetivo que, por cierto, no sería posible sin la desinteresada colaboración de un amplio número de instituciones, entidades, organismos, empresas y, en definitiva de, personas que, con regularidad y paciencia, han ido dando respuesta a nuestras demandas de datos y de opiniones. Nuestro más sincero agradecimiento a todos ellos.

Ignacio M^a Echeberria Monteberria

Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberako Lehendakaria
Presidente de la Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Bilbao



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Berrikuntza eta Ekonomi
Sustapen Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Innovación
y Promoción Económica



**BILBOKO
MERKATARITZA
GANBERA**

**CÁMARA DE
COMERCIO
DE BILBAO**

Guztiok dakigu aldaketa handiko garaia bizi dugula eta gero eta aldaketa handiagoak datorzkgula. Izan ere, egoerak aldatzen dira, baita ere ezaguerak, teknologiak, jarduera markoak...

Enpresak ahalegin handia egin beharko du erronka berriei aurre egiteko. Ezagutzaren Gizarte honetan, ezinbestekoa da informazio garrantzitsua eskura izatea, gure jarduerak bideratu eta erronka berriei erantzun ahal izateko.

Horrela beraz, funtsezkoa da enpresarentzat informazioa, ingurua eta inguruaren eboluzioa ezagutzea.

Illo horretatik, informazio ekonomikoa oinarrizko aktiboa da eta, izan ere, aktibo honek bere garapenean laguntzen die enpresei eta inguruko errealitatearen berri ematen die. Enpresa batek dinamikoa eta eraginkorra izan nahi badu, bestela esateko, merkatuko eskabide eta exijentziak ezagutu nahi baditu, merkatuko funtzionamendua eta, batez ere, eboluzioa eta joerak ezagutu behar ditu.

Bestalde, garapen iraunkorrarekiko eta ingurumenaren errespetuarekiko arauak are gehiago indartzen dute ekonomi jarduerak bere ingurunearekin duen harremana; horrek esan nahi du biak bateratu behar direla, hots, garapen ekonomikoa eta iraunkorra, eta, beraz, bataren eta bestearen eboluzio adierazle eta aldagaiak ezagutu behar ditugula.

Merkatu ekonomia batean ekonomi agenteek nahitaez jarraitu behar dute uneko egoera edo abagunea. Hartara, derrigorrezkoa da jakitea ekonomia hazi, geratu edo atzeraldian eroriko ote den, erabakiak hartu ahal izateko.

De todos es conocido que nos hallamos en una época que está, y estará cada vez más, caracterizada por el cambio. Cambian las circunstancias, cambian los conocimientos, cambian las tecnologías, cambian los marcos de actuación...

Para afrontar los retos que se avecinan el esfuerzo empresarial será importante. En la Sociedad del Conocimiento en la que nos movemos, contar con información relevante que nos permita poder orientar nuestras acciones para dar cumplida respuesta a esos retos es de capital importancia.

La información, el conocimiento del entorno y de su evolución, se convierte en un elemento clave con el que debe contar la empresa.

En este contexto, la información económica es un activo fundamental que coadyuva al desarrollo de las empresas y las mantiene en permanente contacto con la realidad que las rodea. Si una empresa desea ser realmente dinámica, efectiva y estar alineada a las demandas y requerimientos del mercado, debe conocer la lógica de su funcionamiento y, sobre todo, cómo evoluciona y qué tendencias apunta.

Además, las nuevas pautas y compromisos con el desarrollo sostenible y el respeto al medio ambiente refuerzan, más si cabe, esa estrecha relación de la actividad económica con su entorno más inmediato, lo cual se traduce en una mayor necesidad de armonizar ambos (desarrollo económico y sostenibilidad) y, con ello, el conocimiento de las distintas variables e indicadores de la evolución de uno y otro.



Hori guztia kontuan izanik, Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailak eta Bilboko Merkataritza Ganberak argitalpen hau abiarazi dute, gure lurralde historikoko ekonomi informazioa eskaintzeko eta, horrela, Bizkaiko ekonomiaren eboluzioan eragin handiena duten faktoreak zehatz-mehatz ezagutu eta eboluzio horren joerak hobeto ulertzeko.

El seguimiento de la coyuntura es indispensable para todos los agentes económicos en una economía de mercado. Resulta fundamental para la toma de decisiones, saber si la economía va a crecer, estancarse o entrar en recesión para poder tomar decisiones.

Conscientes de todo ello, se pone en marcha esta publicación intentando profundizar en el conocimiento de nuestro Territorio Histórico mediante la aportación de información económica que permita analizar, con detalle, los factores que más influyen en la evolución de la economía de Bizkaia y adquirir, de este modo, una mejor comprensión de su comportamiento.



“IKUSPUNTUA”, gaur aurkezten dugun hiru hilean behingo buletin honek Bizkaiko ekonomi jardueraren zifra garrantzitsuenak eskainiko dizkigu hiru atal handitan banaturik:

- Aztertu den aldiko ekonomi gertakari garrantzitsuenen laburpena.
- Industri sektorearen, eraikuntzaren, zerbitzuen, kanpo merkataritzaren, lan merkatuaren eta enpresa dinamismoaren azterketa eta portuko eta aireportuko jarduera mailaren analisisa.
- Bizkaiko adierazle sozioekonomiko garrantzitsuenak jasotzen dituen taula.

“IKUSPUNTUA”, boletín de periodicidad trimestral que hoy presentamos, contendrá un compendio de las principales cifras de actividad de la economía de Bizkaia, con una estructura de tres grandes secciones:

- Una sinopsis de los hechos económicos más destacados del período analizado.
- Un análisis de la evolución del sector industrial, de la construcción, de los servicios, del comportamiento del comercio exterior, de la situación del mercado laboral, del dinamismo empresarial y del nivel de actividad del Puerto y del Aeropuerto.
- Una tabla con los principales indicadores socio-económicos de Bizkaia.

IKUSPUNTUAK baditu ezaugarri batzuk beste ekonomi argitalpen batzuetatik bereizten dutena. Hona hemen garrantzitsuenak:

- Bizkaiko ekonomiaren pultsua ezagutzeko aukera emango digu eta informazioa iturri nagusitik lortuko da: enpresak.
- Ikuspegi zabal eta objektiboa eskaintzen du, hartara, enpresek beren egoera sektoreko beste enpresena baino hobea ala txarragoa den jakin dezakete.
- Erraz interpreta daitekeen informazioa ematen du, eta, gainera, informazio hau ekonomi abagunearen adierazgarria da.
- Industri sektorearen eboluzioa aurreikusten du, Industriaren Konfiantza Adierazleak Industriaren Produkzio Indizearen eta Industri Prezioen Indizearen joera aurreratzen duelako.
- Funtsezko informazioa ematen die enpresei, joera aldaketek "ohartarazten" dituelako.
- Bizkaiko dinamismo ekonomikoa islatzen du, enpresa sortu berrien kopurua unean-unean jasotzen duen argitalpen bakarra delako.
- Ekonomi adierazlerik garrantzitsuenen laburpena barne hartzen du.

Con relación a las características propias que distinguen a IKUSPUNTUA de otras publicaciones económicas destacar:

- Va a permitir conocer el pulso de la economía de Bizkaia, obtenido desde la principal fuente de información posible: las empresas.
- Presenta una visión amplia y objetiva, que permite a las empresas poder saber si su situación es más o menos favorable que la del conjunto de las empresas de su sector.
- Contiene información de fácil interpretación y altamente representativa de la coyuntura económica.
- Augura la evolución del sector industrial, ya que el Indicador de Confianza de la Industria anticipa el comportamiento del Índice de Producción Industrial y del Índice de Precios Industriales.
- Proporciona información clave a las empresas porque "alerta" sobre previsibles cambios de tendencias.
- Refleja el dinamismo económico del Territorio Histórico, ya que es la única publicación que recoge puntualmente el número de nuevas empresas creadas.
- Incluye una síntesis de los indicadores económicos más relevantes.

Azkenik, esan beharrekoa da buletina txosten ekonomiko zabalago baten laburpena baino ez dela, izan ere, txostenak sakonago aztertzen du buletinean jasotako informazioa eta web orri honetan eskura daiteke:

Por último, hay que indicar que el boletín es una versión reducida de un informe económico más amplio, que analiza con mayor nivel de detalle los contenidos de dicho boletín y que está accesible en la web:

www.berrikuntza.bizkaia.net
www.camarabilbao.com



Ikuspuntua:

Bizkaiko ekonomiaren azterketa egoki bezain zuhurra da eta gure errealitatea ezagutzeko egokiera ematen die enpresei, hain zuzen ere aldatzeko aukera izan dezaten.

Ikuspuntua:

un certero análisis de la economía de Bizkaia que permite a las empresas conocer nuestra realidad para, así, poder llegar a transformarla.